

Egin zaitez **ukberri.net**-eko partaide!

Behar zaitugu. Zure ideiak, partaidetza eta dirua behar ditugu. Argi, ezta? UKBERRI.NETen albisteak bezain argi. Euskara eta eskualdeko komunikazioaren aldeko proiektuarekin orain dela 4 urte hasi ginen, euskara txukun eta erreaz eta ikuspegi zabal eta askotarikoaz. Dagoeneko, UKBERRI.NET Uribe Kosta eta Erandioko Internet bidezko agerkari euskaldunak 4.668 pertsonengana eramaten ditu eskualdeko berriak. Hutsuneak hutsune, proiektua uribe kostar guztiei zabaltzeko moduan dagoelakoan gaude, eta gainera, pilatzen zaizkigun proiektu guztiak egingo baditugu behar-beharrezko izango ditugu partaidetza zabal eta diru independente multzo dezente bat. Horra hor erronkak:

- **UKBERRI.NET** agerkari euskaldunaren berdiseinua, agenda indartzea, multimediarra hurbiltzea, spam-a moztea eta behar den tresneria erostea, komunikabide profesional eta parte-hartzailea helburu.
- **MYSACE.COM** bezalako tresna euskalduna abiatzea Uribe Kostako musika talde euskaldun eta elebidunentzako.
- **ESKUALDEKO AGERKARI DIGITAL SEKTORIALAK** sortzea euskara hutsez, sektore bakoitzeko eragileekin elkarlanean. Lehenetasunezkoak: emakumea, gazteria, euskara, kultura eta kirola.
- **KULTUR PRENTSA BULEGOA**ri ekitea, kultur ekitaldiak egiten dituzten eskualdeko eragileei zuzenduta, ekitaldien zabaltzean laguntzeko, komunikazio ikastaroak emateko eta komunikazio gida kaleratzeko.
- **ESKUALDEKO HERRI AGENTZIA** sortzea Uribe Kostako jendeak eta eragileek sortzen duten informazioa zabaltzeko.
- **AUZOLANEAN JARRAITU** Euskal Herriko Kontrainformatu taldean, Algortako jai batzordean, Sopela eta Larrabasterrako txosna batzordean, Leioako Maritxu Teilagorri eta Algortako Aldai Patronatuan.
- **ELKARLANA SUSTATU** Mundurat Sarean, Topagunea eta Ibaizabal Telebista proiektuetan barneratuz eta "UK", Koska irratia, Etengabe, Plentzia Telebista eta "Harrabots"ekin harremanak estutuz.
- **URIBE KOSTAKO HITZA** posible egiteko urratsak ematea.

☞-----
BAZKIDETZA TXARTELA
(eman UKBERRI.NETeko txosnetan, erredakzioan edo e-postaz idazkaritza@ukberri.net helbidean)

Izen-abizenak: _____

Posta elektronikoa: _____

Helbidea: _____

Herria eta kode postala: _____

Telefona: _____

Bazkidetza mota: langilea (urteko 25 euro) / ikaslea edo langabetua (urteko 12 euro) / kolektiboa (urteko 100 euro).

Ordainketa: eskuz / bankuz - epe batean / epe bitan.

Kontu Korrontea (20 digito): - - -

Kontu korrontean agertzen den karneta: _____

Mila esker eta hurrengo asanbladan ikusi arte!